

Arte Ederren Bilboko Museoa -
Tabakalera

2023.06.23
2023.11.05

THAT TIME EU

Erakusketaren abiapuntua Arte Ederren Bilboko Museoko bilduma da, hau da, arteari eta memoriari buruzko kontakizun berezia proposatzen duten ehun bat lan. Aldi baterako Tabakalerara eraman eta *zabaldu* dira. Erakusketaren izena Samuel Becketten *That Time* (1976) antzezlanetik dator. Lan horretan, poeta eta antzerkigile irlandarrak hiru ahots sortzen eta nahasten ditu, protagonistaren bizitzako hiru momenturen berri emateko: gaztaroko ahotsa, helduaroko ahotsa eta zahartzaroko ahotsa. Erakusketa era berean dago antolatuta, Tabakalerako erakusketa-espazioak zeharkatzen dituen ibilbide zirkular batean. Hiru esparruetan iragana (C ahotsa), oraina (A ahotsa) eta etorkizuna (B ahotsa) islatzen dituzten hiru ahots sortzen dira. Horien bidez, bisitariak bilduma baten denboraren eta historiaren hiru aro ezagutuko ditu. Iragana eta oraina Arte Ederren Bilboko Museoko bilduma sortzeko funtsezko bi ardatz dira. Museoa 1908an ireki zen, eta K.o. II. mendea eta gaur egun artean sortutako adibide artistiko garrantzitsuak biltzen ditu. Bestalde, Tabakalera, sorkuntza

garaikidea, gure garaiko artea eta eztabaidak sustatzeko helburua duen zentroa, museoko bildumari begirada berri bat eskaintzeko toki aproposa da. Hortaz, *That Time*k bildumari orainaldian finkatutako begiradarekin heltzen dio, baina, pendulu baten modura, iraganera eta etorkizunera ere mugitzen da.

Erakusketaren hasieran, zenbait egile eta arotako hamaika bustok erretratuen izaera *memoriala* azpimarratzen dute; izan ere, munduaren eta aldi baterako gauzen hauskortasunaren aurrean, gure artean ez dagoenaren oroitzapena bizirik mantentzen dute. Memoria aldarrikatzen du, eta, iraganetik, beste denbora (bizien denbora) eta toki batera (etorkizuna) eramaten gaitu. Batzuk anonimoak eta data ezezagunekoak dira, eta, beste batzuk, aldiz, artista ezezagunek eginak (Durrio, Quintín de Torre, Josep Clará, Eduardo Arroyo). Irudietan garai batean ezagunak izan ziren pertsonaiak daude (Aurelio Arteta margolaria, Joséphine Baker dantzari eta abeslari afro-amerikarra), baita ezezagunak ere. Hamaikak, erretratuari esker, betikotasunaren denbora-ezean kokatuta.

Lehenengo aretoan (C ahotsa) Vicente Ameztoy, Ibon Aranberri, Bonifacio, Marta Cárdenas, Juan Luis Goenaga, Susana Talayero eta Cy Twomblyren lanek iraganeko aro zaharkitua (baina ez amaitua) irudikatzen dute, zeinetan “izan zen” hura oraindik ez den guztiz igaro. Iragan hautemangarriaren presentzia materiala oraineko forma artistikoetan nabari daiteke (Joan Piéren *Idoloa*; Albertoren *Otiaren emakumea*; Elena Asinsen *Zortzi menhir bidimentsional*; Remigio Mendibururen *Sustraiak*). Sekularizatutako orainaren enigmak (Óscar Domínguez *Ehiztaria*; Francis Baconen *Irudia etzanda ispiluan*), berriz, Erdi Aroko eskulturaren erritualaren eta mitoaren bidez irudikatzen dira (*San Joan gurutzearen oinaldean*), baita aldareetako margolanaren bidez ere (El Grecoren *San Frantzisko otoitzean*), hau da, bizitza jainkotiarraren eta gizakia- ren irudikapenen bidez.

Denbora hezte, unitate homogeneoetan banatzea eta modu arrazionalan antolatzea (zortzi orduz lan egitea, zortzi orduz atsedean hartzea eta zortzi orduz aisialdia) XIX. mendeko iraultza industrialaren helburua izan zen, eta, gaur egun, oraindik ere, horren ondorioak bizi ditugu. Erakusketaren bigarren aretoa (A ahotsa) orainaldiari dagokio. Aro horretan, gizarte teknologiko eta industrialaren aginduak artista askoren lanean irudikatzen dira (Vicente Cutanda, Celso Lagar, Daniel Vázquez Díaz, Aurelio Arteta, Agustín Ibarrola, June Crespo). Teknologia eta energia industrialak sorkuntzarako indar ahaltsuak dira; gerra

eta horren ondorioak albo-kalte garrantzitsuak (Goya, Anthony Caro, Mari Puri Herrero, Idoia Montón, Vicente Larrea, Iñaki Gracenea).

Azkeneko aretoan ikusleek etorkizunaren ziurgabetasunari aurre egin beharko diote B ahotsaren bidez. Becketten antzezlanean gaztarolari dagokio, hain zuzen ere. Txomin Badiola, John Davies, Fernand Léger, Markus Lüpertz, Nemesio Mogrobojo, Susana Solano eta Maria Helena Vieira da Silvaren artelanek erakusten digute artista garaikideek nola egiten dioten aurre artearen historiari (iragana eta horren mamuak) artelan berria sortzeko. Mari Puri Herreroren *Albia* lanean irudiak bereizi egiten dira mamu-izaera lortu arte; Zurbaráñen *Aurpegi Santuan*, ordea, espektro itxura duen eta ez dagoen gorputz baten irudia betibiziko presentzia bihurtzen du artistak.

Horrez gain, hiru artista garaikideri *That Time* erakusketarako enkargatu hiru lanen bidez (Ilke Gearsen *The Same Ground*; Jorge Moneoren *Exergo* eta Ainara LeGardonen *Pausa Pulsar*), museoko bildumako obren jarraitutasuna eten egiten da. Lan berri horiek erakusketa honetarako sortu dituzte zehazki, eta denborazko artearen zein garai bakoitzeko artearen loturak eta kontrakotasuna aztertzen dituzte, eta publikoa arte garaikidearen hizkuntza-mekanismoak ezagutzera gonbidatzen dute. Horrez gain, museoko kontakizunak osatzen dituzten imajinario kolektibo zein indibidualak Tabakalera, ekoizpen artistikorako zentroan aztertzeko gonbidapena egiten dute.

bilbao museoa

